

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BASTIDAKO UDALA

#### **Bake epaile titularren eta ordezkoren karguak betetzeko deialdia**

Kontuan hartuta Bastidako oraingo bake epailearen agintaldia amaitu dela, irailaren 3ko Alkatearen 445/2021 Dekretuaren bidez, deialdi publikoa egiten da Bastidako bake epaile titularren eta ordezkoren karguak betetzeko. Hori guztia Bake Epaileen ekainaren 7ko 3/1995 Araudiak 4. eta 5. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

Bake Epaileen ekainaren 7ko 3/1995 Araudiaren 1.2 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten interesdunek aurkeztu ahal izango dute eskabidea. Hona hemen betekizunok: espainiarra izatea, adinduna eta botere judizialaren lege organikoak 303. artikuluan ezarritakoren baten mende ez egotea.

Eskaerak udaletxean aurkeztu behar dira, udal idazkaritzan dagoen formularioan, hamar egun balioduneko epean, deialdi hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

Bastida, 2021eko irailaren 13a

*Alkatea*

**LAURA PÉREZ BORINAGA**